



...-T(Z)EN BA-..., ...-GO/-KO ...

Hartu, nahi baduzu.	<i>Cógelo, si quieres.</i>
Ahal badut, egingo dut.	<i>Si puedo, lo haré.</i>
Etortzen baldin bada, esango diot.	<i>Si viene, se lo diré.</i>
Entzuten badizu, haserretu egingo da.	<i>Si te oye, se enfadará.</i>
Axola ez bazaizu, makina hartuko dizut.	<i>Si no te importa, te cogeré la máquina.</i>
Isiltzen ez bazarete, kanpora bidaliko zaituztet.	<i>Si no os calláis, os mandaré fuera.</i>

Ezezka baldin bada partitiboko-(r)ik ipiniko dugu:

Lanik baldin badut, ez naiz etorriko.	<i>Si tengo trabajo, no vendré.</i>
Jan ezazu, gogorik baldin baduzu.	<i>Come, si tienes apetito.</i>
Laguntzarik behar baduzu, deitu.	<i>Si necesitas ayuda, llama.</i>

Idatzi baldintza errealeko esaldiak adibidean erakusten den bezala:

1.- Puskatzen da; konpontzera eramango dugu.

Puskatzen bada, konpontzera eramango dugu.

2.- Garestia da; ez du inork erosiko.

3.- Norbait etortzen da; kanpoan naizela esaiozu.

4.- Hemen garelara konturatzen dira; berehala isilduko dira.

5.- Oinez joaten naiz; nekatuta iritsiko naiz.

6.- Iganderako sendatzen naiz; Urbiara joango gara.

7.- Dirurik dut; erosiko dizuet.

8.- Horrelako libururik dut; bidaliko dizuet.

9.- Erortzen zara; min hartuko duzu.

10.- Bustitzen zara; katarroa harrapatuko duzu.

11.- Agertzen zarete; pozik egongo dira gurasoak.

12.- Ondo portatzen zarete; sari bat emango dizuet.

13.- Elurra egiten du; eskiatzera joango gara.

14.- Goiz amaitzen duzu; elkarrekin bazkalduko dugu.

15.- Ez duzu ateratzeko gogorik; etxean geldi zaitez.